

Astekaria

# BARREN elgoi



**Errosario jaiak  
kaletarrak kalearen omenez**

AZKUE



**LARRAÑAGA** <sup>15000</sup> autoeskola



Santa Ana II. 74 10 II - ELGOIBAR

# rv \ a rum

;A\,

Giro erfoiyuida eta profesionala  
oNstilla •

4 ,Ivy1>



SAU NA

MASAIA

SOUASH

IGERILEKUA

AEROBIC

KARATEA

FRONTOIA

MUSKULAZ10A

Jrrlaren 2tik, 23ra  
ATEAK 1REKITA!

ZAT0Z ETA  
EZAGUTU GAITZAZU!

## OLAIZAGA JATETXEII



GESTIO BERR1A

LAGUNARTEKO  
GIROA

GOSARIAK,  
RAZKAR1AK,  
AFAR1AK,,,,

CANAL +

Urriaren 12tik aurrera igande eta jai egunetan  
arratsaldez ZABALIK

**elgoiBARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala,

**ZUZENDARIA:**

Alberto Agirreazaldegia.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edume Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**MAKETATZAILERAK:**

Maife Rementeria,

Edu Sanz.

**PUBLIETATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADHumstRAzioA:**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

**KOIABORATZAILERAK:**

Irati Agirreazaldegia, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabolaga, Ainar

Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Izaro Etxegibel, Enez

Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ina Garagarza,

Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guilla, Maite Iriondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Leon,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose

Inazio Sarasua, Oihana Tarragual,

Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor

Vazquez, Ana Vila, Miryam

Viirasanle, Alaitz Vives, Aitor

Zabaleta, Yulen Zaboleta,

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

**Rubillaga Oñati)**

**TIRADA: 3.300 ale**

**LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92**

**ISSN: 1133-021X**

**elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

## ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

# Eguraidi txarrari...

**I**ritzi zabaldua da azken hamabost hogeitau urte honetan elgoibartarron bizimoduak eskasagora jo duena. Ez naiz ni bestelakorik esaten hasiko oraingo hau idatzi behar dudala eta.

Halere, den dena ez omen da behin ere txarra izaten, edo, ona, txarraren parte bat ere ba omen da. Hortaz, inori zuzenean so egin gabe, begirada galdu antzean, despistatu aurpegiz jaurtitzen diren kontu horiek bezala harrotuko ditut neureak umore beltzaren antzera besterik ez bada ere.

Botere politikoa norbera aberasteko erabiltzen ikusteak bat baino gehiagori gogorarazi digu gizalegearen, balore etikoen beharra.

Nik esango nuke ingurunea hondatuta ikusten ohitu egin garela, eguneroko bizimoduan behinik behin, oporretarako osagarri bezala utziz. Herrirako, eguneroko ekologismoa geratzen da janari dietetiko, paper eta beira birtziklatu edo bolantarik gabeko hegaluze eta antzekoekin. Baina, egia esan, hauek kontzientzia ekologiko berri baten adierazle argiak dira, bestalde.

Lehenago hirigintza loriosak ere (eraikuntza bakoitza desberdina tamainuz, formaz, estetikaz, berdegune gabea, ...) bere fruitutxoak eman ditu: alde zaharreko harlauza berriak ipintzea, Giza Eskubideen eta Maalako parkeak

edo lorontzi handi zuri horiek jarri eta horren bikain mantentzea.


Dirua urritzeak gastuen artean garrantzizkoenak apartatzera eraman gaitu eta bitxiak izan dira aldakuntzak. Jantzitan gastatzea, autoa izatea eta oporretara joatea, lehen, bakan batzuentzat baino ez zirenak, gaurregun nekezzen baztertzen diren aukerak dirudite.

HIESaren gaitzak gure artean egindako sarraski mingarriak barrea jelatu eta lehen medikuntzaren aurrerapenengatik ahaztuxea zegoen osasunarekiko sentsibilitatea atzera indartu egin da.

Langabeziaren gorakadak jende asko mugiarazi du ikastaroak egitera, beste lanbide batzuk bilatzera eta lana, zigor bezala hartu beharrean, ia-ia pribilegio bezala ikustera. Bakarkako ikuspegi honetatik industriaren beherakada nabariari buelta nola eman pentsatzera ez da erraz pasatzen, baina, zorionez, badira hor zehar ikasle gazteak beren entpresak sortzera animatzen ari direnak, izan ere, gehiengoan industriatik (ez derrigorrez metaletik) zuzenean edo zeharka bizi gara, eta ezin dugu ahaztu, erakundeen aurrekontuak murrizten direla ez erakundeak daudelako krisian, krisialdia industrian dagoelako baizik.

**Alfonso Guillo**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



**Ba al dauka Udalak Maala eta IMH artean dagoen ibilbidean espaloirik jartzeko asmorik?**

Hirigintzako teknikariekin egon gara era eurak esan digutenez, momentuz Udalak ez du inolako asmorik aipatu ibilbidean ezer egiteko.

**KEXAK**

Aste honetako kexak paper kontenedoreen inguruan datoz:

- 1.- Ontzi guztietan "Papel" bakarrik azaltzen da eta hori Eusko Jaurlaritzak jarritakoak izanda.
- 2.- Jende askok kartoi kaxak alboan lagatzen ditu, txiki-txiki egin eta ban'ura sartu behanean.

**TXALOAK**

Guraso batek deitu digu hilaren 29an, Herriko Antzokian, Señorita Rosiri egin zitzaion omenaldia txalotzeko. Hogei urtetan Elgoibarko urneei balleta erakusten jardun ondoren, ondo merezi zuen omenaldia.

**Gurutze Gorria etu boluntarioak:**

**G**urutze Gorriak bazkide eta boluntario beniak lortzeko kanpaina ipini du martxan. Gure intentzioa ez da kanpaina honen helburua kritikatzeta, ezta Gurutze Gorriak betetzen duen lana zalantzan jartzetik ere.

Hala ere, erakunde honi buruzko gauza batzuk esan nahi genituzke, Gurutze Gorria baita soldaduzkaren Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko postu gehien eskaintzen dituen.

Soldadutza eta Ordezko Zerbitzu Soziala txanpon berdinen bi aurpegiak dira. Batak bestearen beharra dauka existitu ahal izateko. Horregatik antimilitaristok biei ezetza eman eta intsumisioaren bidea aukeratu dugu, hauxe baita ejerzitoari eta militarismoari benetan aurre egiteko daukagun tresna bakan'a.

Gurutze Gorriaren helburua ederra da: beharra daukanari laguntzea. Hala ere, Ordezko Zerbitzu Sozialaren aldeko apostua eginez erakunde honek fabore makala egiten dio gero eta onarpen haundiago duen mugimendu antimilitaristari. Kanpai-


na honetan suertea izan dezala opa diogu Gurutze Gorriari, baina kontuan izan dezala Ordezko Zerbitzu Soziala euren egoitzetan egiten diharduten gazte gehienak ez direla borondatez aurkeztu, legeak behartuta baizik. Horiek derrigorrezko "boluntarioak" dira.

**Elgoibarko Talde Antimilitarista**

**Atal hau zuen eskutitzen zaiin dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, eta abar... adierazteko aukera duzue.**

**Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak bakarrik agertuko dira.**

**Eskutitzen luzera ez inolz orrialde erdi; rnaknaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango.**






**S**arro,saixo kaleko jaixak, 1919! Bai, 1919. urtean hasi ziren Errosaixo kaleko jaiak antolatzen. Jaiak zortzi eguneko iraupena izan zuten eta egun horietan Errosaixo kalea "Estatu Independiente" izendatu zuten. Jai hauek San Bartolome kaleko jaiak "tapatzeko" intentzioarekin antolatu omen zituzten, eta jakin dugunez lortu ere bai.

Zeintzuk izan ziren jaien antolakuntzaren ardu-

radunak? **Rafael De la Cruz**, **Casimiro Osoro "Artola"**, **Gregorio Gurrutxaga "Olazarra"**, **Felipe Mugerza "Ruso"**, **Juan San Martin "Aldai"**, **Julio Etxaniz "Sastria"**, **Isidra Mugerza "Kakume"** eta **Paula Mugerza "Kakume"**.

Kaleko Erregina, berriz, ehun kilo pasa zituen **Generosa Urreta Garate "Kimuku"** izendatu zuten. Erretratua Udal liburutegiak lagatakoa da.

~~4000~~



32-9

**M5** **MHOIM**

Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINE SALMENTA  
ETA KONPONKETA  
\*mu, IKCF STAK  
\* FOTOKOPADORAK  
\* PLANOEN BIRREGILEAK  
\* ERLOJU INDUSTRIALAK  
\* MAZAZK A MATERIALA  
\* INF RMATHA  
\* FAX

*jai onak izan!*

~~4000~~ *ge tsva*

**BETI** *u* **S. 14.**

*ondo pasa jaiak*

*Err eg& u artikuluak  
Ins laz o orokorrak  
Sukaldekt tresneria.*

**ERROSARIO 6 behea. Te1: 74 16 44**

**DI**

*1373*

*Ondo para gure kaleko jaiak!*

**OIHALA MERZERIA**

Errosario 8. Te1:74 35 95

**INTERIORES**

- Proiektua eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gramioen koordi kuntza
- Neurriera egindako altzariak **372.**

**VGHS R4!**

**Errosario 15. ELGOIBAR 74 40 19 / 55**

# Oro rif \ r \ @ L ELt



Errosaixo kalean jaiak ospatzen dihardute aste honetan zehar. Gaur, ostirala, hilak 7, Amabirjinaren eguna ospatzen dute. Herriko kalerik zaharrenetarikoa da, estekikoki etxe eta kale askok orduko itxura gorde dute, eta han jaiotakoek ere badute zerbait berezia, "kastadunak" omen dira, beraien iritziz. Tradizioz beteriko kalea da. Aurten, kaleko bizitza sozialean zutabe izan diren bi tabernak atek itxi dituzte, Untzonek eta Gorostizak, alegia. Betirako agurrik ez dagoenez, han geratu dira pertsianak jeitsita, huts-hutsik, txikiteroen algarek eta partidazaleen zalapartek noiz berriro beteko.



■ Gorostiza taberna Errosarioko jaietan. Behean, Gorostizatarrak.



**E**rrosaixo kalea, gaur San Frantzisko dena izanda sozilaki, gainbehera etorri zaion arte. "La calle de la feria" deitzen omen zioten sasoi oparoan, San Bartolome kalearekin batera, biak herriko bizitzaren zentru izan ziren. Ezker-eskuma, tabernaz jositako kaleak ziren, gaur egun batzuk desagertu eta zenbait itxi egin badituzte ere.

## GOROSTIZA

Mende inguru izango zituen Gorostiza tabernak joan den abuztuaren 18an itxi zutenean. Gorostiza familiaren kargura egon da ia 40 urtetan. Nagusienek gogoratuko dute lehenago bertan zegoen "Bar Luis" ezaguna. Juanito Gorostizak berak kontatzen du nola Deba ihaiari hartutako arrainak Bar Luisen prestatzen eta jaten zituzten. Honen aurretik bazegoen leku berean "Trastorno" esaten zioten aroztegia.

Itxuraz, apenas aldaketarik jasan duen urtetan zehar. Egurrezko lurra, desnibelatua eta oin hotzen Iekuko, barra altua eta egurrezkoa hau ere. Sarreratik gertu, ezker aldean,

aspaldiko marmolezko mahaiak, "haiek berba eingo balebe, ze historixa kontauko leuketen, beldurgarrixak!" dio Juanito Gorostizak. Atzeko aldean jatorduetarako mahaiak zeuden eta erdi erdian, sukaldea, ez aterik, ez eta keak kentzeko tresnarik ere.

Etxeko giroa eta plater ezagunak eta arruntak: bakilaua, muturrak, tripakiak,.. prezioz edozeinen poltsikora egokitzen zirenak prestatzen zituen Pepita Gartetek, Juanito Gorostizaren amak eta gero, honen emazteak.

Tabloiak eta kina Kirolzale porrokatuak zirenez Gorostizatarrak, futboleko emaitzak jartzen hasi ziren tabloi batzuetan. Printzipalena kirol ezberdinen emaitzak ematea zen, boxeoa, pilota, erremontea, pala, punta, futboleko 10 bat kategoria, txirindularitza, eskubaloia, eta nola ez, herriko futbol talde guztien emaitzak. Azpeitiar batek "trabesak" edo apustuak egiten has-teko proposatu zien eta bai egin ere, "Urtainek jokatzen zabanian ere, baina postura txikixak beti!". Irratian be-rria pega-pega egin-



■ Li 1970. urtea. Untzondarren familia osoa, taberna hartu berritan.

da eta inoiz Eibarre-  
ra ere telefonoz diar  
eginda lortzen zuten  
informazioa. Konpe-  
tentzia latza egiten  
omen zioten Mikel  
Gorostizari egunkari  
salmentan.

40 urtetan zehar  
gauero eta domeka  
eguerdiro, kina joka-  
tzen zen Gorostizan,  
90 numerokoa. Beti  
berdinek joka-tzen  
zuten, azken urteetan

emakumeak gizon-  
koak adina joaten  
ziren eta giroa  
demasekoa omen  
zen.

### UNTZON

Taberna eta  
jatetxea zen Untzon.  
1970. urteko uztaila-  
ren lean hartu zuten  
tabernaren ardura  
Untzondarrek eta  
baserriaren izena  
jarrita ekin zioten  
lanari. Jesusa Korta-

berria izan da 1993.  
urteko abenduaren  
31era arte Untzone-  
ko sukaldaria.  
"Lehenao, Leonardo  
eta Joxepa zianak  
zaken eta 20 urtetan  
egon zian. Aurretik  
Bar Arrate egon zan  
eta lehenago Eibarko  
Eperra esaten zio-  
te-na egon zala uste  
dot".

Untzondarrek,  
Errosaixo kaleko

gehienek bezaht,  
errentan izan dute  
taberna. Aintzinako  
etxebizitza izanik,  
azken urteetan Osa-  
sun Saileko ardura-  
dunak gainean izan  
zituen Jesusak, gaur  
eguneko esijentzieta-  
rako egokitzeko  
obrak egin zituan.  
Goitik behera berritu  
beharra zegoenez,  
lokalaren jabearekin  
konponketa batera  
heldu eta taberna  
laga zuten.

"70ean tabernia  
hartu gendunian,  
mostradoria berrixa  
ipini eta kamarak ere  
berrixak ipini gendu-  
zen. Gainontzian  
Joxepak beheko  
komedora eta komu-  
nak einda zaukazen,  
nik pintau eta zeoze  
ipini det ostian. Eta  
ufalak bi hiru bider  
hartu gaitunian  
berritxu ein bihar".

Menuaz gain,  
bestelakorik ere iza-

ten zuten. Egunik  
zoroenak San Barto-  
lomeak izaten ziren.  
"Txiki Eguna zeze-  
nakin hasi, eta gau-  
ra arte, gelditxu  
barik, lekurik gabe  
egoten ginan. Kalian  
ere barruan beste  
mahai ipintzen gen-  
duan, itxurabe eitzen  
gendun lan. 70 eta  
piku kilo txipiroi,  
40taka kilo tripaki  
eta beste horrenbeste  
gixau jarri izan dit-  
xut Txiki Egunian.  
Solomillua, legatza  
eta txuletia urte guz-  
tian zihar".

Dekorazio alde-  
tik, Leonardo zenak  
bildutako pilotarien  
koadroak zintzilika-  
turik egon dira gaur  
arte. Atano X.enak  
eta beste pilotari eza-  
gun askoren aspaldi-  
ko erretratuek jantzi  
dituzte herriko histo-  
riara pasatu den  
taberna honen  
ormak.

## iragandako sasoi baten islada

Duela 40 urte, Gorostizatarrek taberna hartu zutenean,  
industriaren bultzadaren eragina nabari nabaria zen. Goizean goiz,  
7ak aldera, kaFeak eta anis kopa mordo ematen ziren. Beranduago  
baserrietako jendea joaten zen, eguerdian "sireniak" jotzen zuenean  
demaseko txikiteoa egoten zen. Barra osoa, punta batetik bestera,  
txikitoz beteta izaten zuten, ordaindu, edan eta kalera. Eguerdian kafe  
eta kopa mordo ematen zituzten, eta erretzaileek purua ere bai.  
Arratsaldean "litxarreruak" joaten ziren eta iluntze aldera txikiteoa  
hasten zen berriro, "banderilak" ere mordo bat soltzen ziren. Bazkari  
eta afariak eta gaueko kafeak ere ez ziren falta izaten Gorostizanean.  
Zapatuak, noski, "extra" izaten ziren.

Untzoneko Jesusaren esanetan "zapatu eta jaxetan beste  
koziñera bat eukitzen naban; astegunian ni bakarrik". Autopista  
egiten zeuden garaia zen. Eguerdiko 12etan, sirenarekin batera  
txikiteroak hasten ziren atzera eta aurrera. Gero apopiloak hasten  
ziren, "Go6esa"ko etxeak egiten zeudenak eta hauek bukatzean  
"biajantiak". Bi pertsona barra ostean eta beste bat "banderilentzat"  
behar izaten ziren. "Biajantiek, hainbeste mobimientu ikustian, zer  
gertatzen zan han galdetzen ziaten, ta nik egunero horrela izaten zala  
esaten nienian, ezin sinistu egoten zian".




# NAGUSIEN XIM ETXEGIÑA BERTSO PAPER LEMAKETA

INARRIA 11

- Elgoibarren jaio, bizi edota ikasten dutenentzat.
- 18 urtetik gorakoentzat.
- Gaiak: (Bat aukeratzeko)
  - " Edozer esateko lizentzia eman didate "
  - " Zer da ba animaliangandik bereizten gaituena? "
- Bertso kopurua: Gutxienez 6 eta 8 gehienez.
- Neurria eta doinua: Norberaren gustura eta abilidadera.
- Sariak:
  1. 30.000 pta eta txapela.
  2. 20.000 pta.
  3. 10.000 pta.
 (Parte hartzen duten guztiei afaria)
- Lanak entregatzeko epea: Abenduak 3.  
Elgoibarko Izarra Elkarte, Ubitarte 4 behea.

Lanak bina alez (bi kopia) aurkeztuko dira kartazalean lebiaketaren izenburua ipiniaz. Kartazalaren barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, telefonoa eta egilearen ezizena.



**ANTOLATZAILEA:**  
ELGO1BAFIKO IZARFIA K.F.



**LAGUNTZAILEAK:**  
ELGOIBARKO UDALA  
GPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**OIARTZUN  
URRIAK 9**



**INTSUMISIO  
EGUNA '94**



\*15000



## AUTOBUSA Oetan PUIVIN

EF2PERAKO ICONT2EZTUA LIZROZEN 941.: T+4 Le7..o.z4 E44.4l - 7.,p, 744.4, - 041\*.lo. - N...101,14;4/4 1444e Atio.

INTS(11150 EQINEAN IRIZIAREN liNVEZIOP: 1141,14,44, Hat ef41-1,114.4. DCAZAWIC: Tz44. -744.14, ZOOK: getTo4z. gEZTSOLPRIAI: EL4144,t,

Au z4,4, i1404 S41444,4, 1/04, \$44444..4, 4.44, 1441-C Lty-e3, 114,44;41.4, 1104 Elp, 14, 11.4, HAdide-r, DANTM.DrA, 1,11.144 TZ/e4. ElaTALdf ANT14tUTAZISTA. IANTALDIK: 4.4u24z>>zA, 41344, 1'144tt 1-14,14, ESICLILANEN ERAKIUSKEVL TRICIVIARIK: 4144, 144.;444 T4.4-z,24 14, T4/444. QA2TELL1 PL/2MtAK. HAIRUNTYKO JOIASAK: Sel,r40.14, tztz44-41. ZOKODZOHOO. Kai.EANIMAIIOO. TMAPAZTA STANDAK. EA2K14( HEZZIKOIA. TX02NAK...



**ELGOIBARKO TALDE  
ANTIMILITARISTA**




# Presoen bergizarteratzearen alciekoa a zara?



**ANA LUISA ETXANIZ**

42 urte, etxeoandrea

Odol deliturik ez dauzkatenen kasuetan eta benetan damutzen badira, bai. Baina, bestelako kasuetan, zigorra osorik bete behar dute.



**FERNANDO MANCEBO**

20 urte, langabetua

Ondo dago aukera ematea baina zigorraren zati bat bete badute. Baina hauen soldatatik zati bat bikimentzat izatea ez zait ondo iruditzen.



**JESUS MARI ESPILLA**

32 urte, mandrinadorea

Printzipioz bai, baina oso zaila da ezer garbirik esatea batez ere, odolezko delituetan. Soluzio bat izan leike baina eurak alde daoan ikusi bihar.



**J. ANGEL ZUBIAURRE**

43 urte, mekanikoa

Bai. Lehendabizi beraiek ejenplua eman beharko lukete borroka armatua utziz. Gero gartzelatik irteteko aukera eman beharko litzaieke guztiei.



**FRANCISCA BARRE I ROS**

41 urte, etxeoandrea

Min egiten duenak ordaindu egin behar du. Baina damutzen bada eta ez badu txarrik egiten berriro aukera bat eman behar zaiola uste dut.



**M. PILAR ARRIOLA**

26 urte, bankuko langilea

Benetan damutzen badia, intentzio txarrik ez bada-ke berriz berdina egiteko, bai. Euskal Herrixa bakian ikustiarren bada, bai.

**eovargo**

**9ez,t JATETXEA**

**Berezitasunak**

- GOSARIAK PINTXOAK ◦
- (8,30etatik aurrera)
- MENU BEREZIAK
- MENU TRADIZIONALAK



**JANGELA:**

Astelehenetik larunbatera IREKITA

Astelehenetik ostegunera GAUEZ ITXITA

**atdd futda** **14.11**

Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

## 11 Zuhaitz Taldeak deituriko bilerak

Zuhaitz Astialdirako Taldeak hilaren 22an emango dio hasera 1980tik 83ra bitartean jaiotako neska-mutilekin, aurtengorako prestatutako ekintza programari. Lehenago gurasoekin bilera bat egiteko deia zabaldu du, interesik dutenak bertara agertzeko animatuz. Bilera bat urriaren 11n, arratsaldeko 7etan izango da Maialako elizan eta urriaren 14ean ordu berean, Ubitarte Zentruan.

### ■ AEK Eguna P94 Tafallan

Datorren igandean, hilak 16, AEK Egunaren zazpigarren edizioa burutuko da Tafallan. Egun osoan zehar ekitaldi mordoak izango dira, fanfarreak, erakusketak, kantaldiak... Bertara joateko autobusa antolatu du Elgoibarko AEKk. Oiz-Mendi tabernan eta AEK Euskaltegian edota 74 13 31 zenbakian jasoko dira apuntatzeko izenak.

## 11 Intsumisio Eguna '94 Oartzunen

Igande honetan, hilak 9, Oartzunen ospatuko den Intsumisio Eszuna '94ra joateko autobusa jarri du Elgoibarko Talde Antimilitaristak. Goizeko 10etan irtengo da Plaza Handitik eta izena emateko gaur, hilak 7, izango da azken eguna, Oiz-Mendi eta Txuri-Beltz tabernetan. Bidaiaren zenbatekoa 500 ptakoa da.

### ■ Bernardo Atxagaren hitzaldia asteartean

Bernardo Atxaga Elgoibarren izango da datorren asteartean, hilak 11, literatur sorkuntzari buruz mintzatzeko. "Literatur lan baten sorkuntza prozesua"ri buruz jardungo du Atxagak. Ekitaldia Ikastolak antolatutakoa da eta arratsaldeko 7etan hasiko da. Gogoratu Bernardo Atxagak Estatuko literatur Saria jaso zuela "Obabakoak" lanagatik.



**Chicagoko Erraminta Makinaren** Nazioarteko Ferian IMTS'94 izenekoan, egon dira argazkiko elgoibartarrak. Munduko bigarren feria garrantzitsuena da Chicagokoa, Europako EMOren atzetik. Bertan herriko hainbat enpresa egon dira, besteak beste, Anayak, Grupo Danobat, Doimak, Estarta Ingenieria y Maquinaria, Kondia eta Izpe. EEBBak Espainiako erraminta makinaren bezerorik onena bihurtzeko bidetan dago, Alemaniaren aurretik. Ferian izan diren elgoibartarren iritziz, krisia baino lehenagoko salmenta mailak berreskuratzen ari dira.



**La Union Elkarteko** Patxi Astigarragak eta Karmelo Lasuen elgoibartarrak, argazkian, joan den astebukaeran Durangon burutu zen Euskadiko Marmitako Txapelketan parte hartu zuten. Hiru errondako txapelketan, elgoibartarrak bigarren errondan kanpoan geratu ziren. Guztira 140 sukaldarik hartu zuten parte aurtengo edizioan. Iparraldeko bikote bat izan zen txapelduna.



**Dantza Eskolako** ikasle guztiek saio entrenigarria eta polita eskaini zuten pasa den astean Herriko Antzokian. Era guztietako dantzak egin zituzten, ballet klasikoa, aerobic-a, bakalaoa,... Herriko Antzokia goraino bete zen saioa ikustera urreratu zen jendeaz eta ia bi orduko iraupena izan zuen. Ekitaldian, Señorita Rosa omendu zuten, 20 urtetan dantza irakasten jarduteagatik.

## **Nathalia TV 1 ko "Pasa la Vida" programan**

ikusteko aukera izan genuen joan den astelehenean. Elgoibartar gazte honek, aipatu saioko lehiaketa batean parte hartu zuen, "Canci(5n española" sailean. Irabazleak 1.000.000ptako saria jasoko du. Egunero ehun eskutitz bidaltzen dira Estatu osotik parte hartu ahal izateko baina guzti horietatik bat bakarrik aukeratzen da. Nathaliak bidali zuen zintatik, "22 abril" abestia aukeratu zuten programakoek abeslari gazte honek kanta zezan. "Pasa la vida"n, Agustin Pantoja (argazkian) ezagutzeko aukera izan zuen, Isabel Pantojaren anaia, eta honek bere arreba Isabel gogora arazten ziola esan omen zion. Lehiaketan kontuan hartzen dutena, sentimentua, ahotsa eta eszenatokian ondo moldatzea dira. Elgoibartarrak eszenatokia bete omen zuen abesten. Finalera pasatzeko itxaropenarekin, Nathaliak bere ahotsa iantzen eta hezitzen jarraitzen du, Angela Zabaleta kantu irakaslearen laguntzaz.



## **III Txankakuak bi ikastaro antolatu ditu**

Txankakua Merkatari eta Zerbitzarien Elkarteak herriko merkatariari zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu. Bata, Oinan izko Gestio Komertziala eta Ordenagailuei buruzkoa izango da. Urriaren 10etik 27ra bitartean burutuko da IMIren egoitzan, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 8etatik 10,15ak arte. Prezioa 5.000 pta izango da. Beste ikastaroa eskaparatismoari buruzkoa izango da. Honako hau Gipuzkoako Merkatarien Elkartearen laguntzarekin antolatu dute. Bi elkarteetako bazkideentzako prezioa 3.000 ptakoa da, elkarte bateko bazkideen prezioa 5.000 pta eta bazkide ez direnentzako zenbatekoa 10.000 ptakoa da. Ikastaro hau hilaren 24an hasiko da eta zazpi astez luzatuko da. Izena emateko 10 66 66 zenbakira deitu, hilaren 19an beranduenez.

## **• HiESari buruzko jardunaldiak**

Errotatxok, HIESari buruzko Informazio eta Prebentzio Jardunaldiei ekingo die datorren astelehenetik aurrera, hilak 10. Astelehenean arratsaldeko 7etan, Kultur Etxeko ganbaran muntatuko den erakusketa inauguratuko da. Asteartean, asteazkenean eta ostegunean, hitzaldi-eztabaida bana egongo da arratsaldeko 7,30etan hasita. HIESaren inguruko hainbat gai ikutuko dira Euskal Herriko mediku eta adituen partaidetzarekin. Ostiralean, hilak 14, "El aceite de la vida" filmea eskainiko da Herriko Antzokian arratsaldeko 7,30etan. Larunbatean Kili-Kolo taldearen eskutik kafe-antzerkia izango da Maalan gaueko I Oetan eta farunbatean, eguerdiko 1 etan, ornenaldia egingo zaie Elgoibarren HIESaz hildakoei. Ekitaldian Haritz Dantzari taldeak, Txalaparta Taldeak eta Bertsolari Eskolakoek parte hartuko dute. Segidan Giza Katea burutuko da.

## Jose Luis Fernandez:

### "Piraten pelikulekin sortu zitzaidan itsasuntziekiko afizioa"

Jose Luis Fernandez 49 urteko elgoibartarra dugu. Ama fruta saltzailea zuen eta, "haren egurrezko kaxekin jolasean ibiltzen nintzen. Egurra moztu eta itsasuntzi zein hegazkinak egiten". Zinean ere, piraten abenturak kontaktzen zituzten pelikulak gustatzen zitzaizkion eta

hamabost urte zituenean, "liburu bateko argazkiari begira" egin zuen estraineko aldiz itxurazko itsasuntzi bat. Gaur egun, berak eta Javier Merinok, buhardilatxo bat daukate estudio bezala. Bertan, orduak pasatzen dituzte, planoen bidez itsasuntzi izugarri dotoreak egiten.

#### - Gaur egun planuekin aritzen zarete, ez?

- Bai, planuak erosten ditugu eta gainontzeko guztia gure esku geratzen da. Guk lortzen dugu materiale guztia, guk egiten beharrezko elementu eta tresnak... Askotan, lan hau egiteko, tresna beniak asmatu behar izaten ditugu, barku bakoitzeko elementu konkretuetara ego-kituz.

#### - Zenbat denbora behar da hauetako itsasuntzi bat egiteko?

- Lan hau orduka kontaktzen da. Zuk hamar urte pasa ditzakezu itsasuntzi bat egiten baina zenbat ordu erabili izan dituzu? Dietario batean apuntatzen dugu eman dugun ordu kopurua. Orain egiten ari naizena 1992an hasi nuen, 1.700 ordutik gora igaro ditut eta oraindik beste horrenbeste geratzen zaizkit.

#### - Pazientzia handia behar da, beraz.

- Pazientzia baino gehiago konstantzia. Eta sormena, elementu bakoitza nola egin dezaitezun asmatu behar da.

#### - Eta ez al duzu sekula dena bertan behera uzteko gogorik izan?

- Ez, gustura egiten dut eta. Egun batzutan ez



#### "Pazientzia baino, konstantzia behar da, eta sormena".

zaizkizu gauzak zuk nahi bezala ateratzen eta horrelakoetan hobe da uztea eta hurrengo egunean jarraitzea.

#### - Zein da erabiltzen duzuen materialea?

- Batez ere pinua eta batzuetan baita gaztainondo eta antzekoak ere. Gainontzean pintura normalen bidez nahi duzun kolorea lor dezakezu, kola, alanbrea... Baina oinarrizko elementua egurra da, dudarik gabe.

#### - Zein neurrikoak dira?

Itsasuntziaren arabera. Orain egiten ari naize-

nak, 1,1m izango ditu, luzeran eta altueran. Pisu aldetik nahiko gutxi, lau kilo edo.

#### - Egin al duzu boti'lan sartzeko itsasuntzirik?

- Ez, eta nahi ere ez. Hain neurri txikikoak izatean ezin dira gauzak detaile osoz egin.

#### - Benetako planuetan oinarritzen zarete, ez?

- Bai, denak dira errealitatean egon diren edo dauden itsasuntziak. Izenak ere benetakoak mantentzen ditugu, oraingo honek *Prince* izena dauka. Javier egiten ari denak

*Vitory* izena dauka eta Trafalgarreko gudan Nelson almiranteak gidatu zuen itsasuntzia da eta gaur egun mantentzen da, Ingalaterran dago eta jendeak bertara bisitak egin ditzake.

#### - Saltzerik pentsatu al duzu?

Sekula ere ez. Gainera oso zaila izango litzateke prezio bat jartzea, orduak eta orduak eta izugarriko esku lana baitago eta hori baloratzea ez da betere enaza.

#### - Zenbat daukazu?

Zazpi bat. Gaztetan egin nituenak ez ditut kontaktzen.

#### - Erakusketak ere egin dituzu.

- Bai, hiru. Azkena orain dela hiru bat aste. Gipuzkoako Elkarte Ozeanografikoan sartuta gaude eta erakusketak egitera joateko deitzen gaituzte noizean behin. Bilbon ere egon nintzen "Banco Hispano Americano" k antolatu zuen erakusketa-lehiaketa batean.

#### - Itsasuntzi berezirik?

- Gogo eta ilusio gehien nere emazteari "nobioak" ginenean oparitu nion bat egiteko jarri nuen. Oraingo hauekin konparatuz hura txapuza bat zen baina...

## Jai osteko lehen feria ajez betea etorri zen

**E**guerdiko 12ak alde-  
ra hurbildu ginen  
iraileko azken aste-  
ko feriara. San Bar-  
tolome jaietakoa izan zen  
honen aurrekoa eta baziru-  
dien hark utzitako ajea  
arrastaka zebilela iraileko  
zapatuan. Jende gutxi ze-  
goefa iruditu zitzaigun, jen-  
de gutxi eta ganadua ere  
eskas, eguerdi parte horre-  
tan behintzat. Bazeuden  
behi batzuk, baita ohizko  
ferreteriatxoak ere, hileroko  
galtzerdi sal-tzailea eta be-  
rrikuntza bat, guretzat ber-  
ria behintzat, lurrez eta,  
batez ere, zumaz eginiko  
aitzariak eta tresnak es-  
kaintzen zituen saltzailea,  
alegia.

Halere, eta orain arte

saltzaileak bakarrik aipatu  
baditugu ere, hilabete ho-  
netan hauek baztertu eta  
erosle batekin izan ginen,  
hauek baitira feriako bene-  
tako protagonistak.

Baserritarrei eskainitako  
zazpigarren gehigarria da  
honako hau eta ferian topa-  
tu genituen baserritarrei  
egin genien galdera, berriz,  
ea sekula basogintzarako  
dirulaguntzarik jaso duten.  
Begira barruan, erantzun  
digutena. Auzoei zuzendu-  
tako atalak ere bereak egin  
du, Altzola baitzen geratzen  
zitzaigun azkena. Elkarriz-  
ketari dagokionean, Juliana  
Zubizarreta panderojolea.  
Badu zer esanik emakume  
honek.



*Zi~ta*

TOAJA BASERRIKOA  
(URRESTILLA)

Hilero Elgoibarrera? - **Bai, hi-  
lero, behi zalia naiz ni.**

- Zer moduzko behiak dira he-  
mengoak? - **Suiza gustatzen  
jata eta hemen ona egoten da.**

- Eta prezioz?- **Garesti xama-  
rrak baina...**

- Zenbatean dago behia?

- **Doscientas setenta behixa ta  
txahal txikia.**

- Poltsikoak bero al daude as-  
paldian? - **Behiak pagatzeko  
lain ailegatzen jata.**

- Urtian zenbat behi erosten  
dituzu? - **Hiruzpalau.**

- Eta noiz erosi zenuen azke-  
nengoa? - **Orain hiru hilabete  
edo.**

- Zeri begiratzen zaio? - **Ibilke-  
ria arina, libria dakan. Ipurdixa  
ondo mobitxu bihar dau ta bu-  
rua ere gora euki bihar dau,**

Eta ona ez dala igertzeko?

- **Burua makurtuta badaka, sei-  
nale txarra!**

• Erositako behiekin gero zer?  
- **Zahartzen dianian kendu.**

- Eta noiz da hori? - **Genera-  
lian dozena bat urte itteittu  
behiak.**

Zenbat behi daukazu? - **Lau  
behi eta zazpi txahal.**

Gaurkoan erosketarik?

- **Ezetz pentsatzen dot. Ikusi dot  
bat itxuraz dotoria baina titixak  
txarrak dakaz. Ez da behi ona.**

## Basogintzako dirulaguntzak



**A**rtikulu honen bidez basogintzarako dauden dirulaguntzak eta baldintza orokorrak azaldu nahi genituzke.

**Baldintzak:**  
1.- Eskaera, lana egiten hasi baino lehenago aurkeztu behar da.

2.- Gutxieneko inbertsioa 100.000 ptakoa izango da, hazkuntza lanetan ezik.

3.- Gehiengo inbertsioa 5 miliokoa izango da, urteko eta pertsona bakoitzeko.

4.- Eskaera egiteko, lurren jabea edota baso lurrak erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea izan behar da.

5.- Eskabidea egiteko aurreko baldintza guztiak bete behar dira.

6.- Lurrek, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egon behar dute kokatuak.

7.- Dirulaguntza eskatzeko, zuhaitzak landatuko diren zuhaitzi bakoitzeko azalera hektarea erdikoa izan behar da gutxienez.

**Dirulaguntzak:**

a) Zuhaitz landaketak:

1.- Hostozabal nobleak (bertako pagoak, harietak, lizarrak...), %85a gehienez.

2.- Hazkuntza ertaineko espezieak (larizioa, pinua eta pinastera, alertzea, aritz amerikarra, izeiak...), %60a gehienez.

3.- Hazkuntza azkarreko espezieak (Insignia pinua, eukalipto eta makalak), %30a gehienez.

b) Hazkuntza lanak.- Garbiketa, bakanketa, kimu hautaketa, iñausketa, sua moztekoak eta zuhaitzietan sastraka garbitzea, %50a gehienez.

d) Bigarren iñausketa, %30a gehienez

e) Batazbestea %12a baino gutxiagoko aldapa izan behar du lurrak eta inoiz ere ez %16a baino haundiagoa.

1.- 5 hektarea baino gutxiagoko aldapak direnean, %20a gehienez.

2.- 5 eta 100 hektarea bitarteko azalerak, %20-75 bitartekoak.

3.- 100 hektarea baino gehiagoko azalerak, %75a gehienez.


f) Ur hornidurarako puntuak, %40a gehienez.

g) Birlandatu aurreko garbiketa egiteko makinaria erabiltzerakoan, eragiketa Iurzuaren azala aldatu gabe burutuko da garbiketaren hondarrak kenduz (beti %35a baino aldapa txikiagoarekin).

h) Baso lanen exekuzio aurrekontua 1.500.000 pta baino altuagoa denean, teknikari eskudunak idatzitako proiektua erantsi behar zaio dirulaguntza eskatzeko agiriri.

**Oharra:** Kontuan hartu behar da hemengo portzentaiak maila gorenak direla eta orokorrean gutxiago ordaintzen dela, administrazioaren aurrekontuaren arabera.

**Juan Zapirain, BASOZAINA**




**Antonio Iraola (55 urte), Arrue baserria, Zaldibi**

Nik neuk ez dot sekula biharrik izan. Orain dala 12 urte pinua bota eta haritz amerikana sartu gendun geuk, inun ere laguntzarik eskatu be.

**Jose Mari Altuna (63 urte), Lizundia Azpikoa, San Antolin**

Sekula ere ez, bueno pinua sartzeko behin edo behin. Orain ere biharra badakau garbitzeko eta laguntzen jakinian banao baina, daneri ez jako ematen eta...



**Juan Muguruza (66 urte), Agarre Txild baserria, San Roke**

**Ez** dot eskatu eta orain ere ez dakat biharrik baina biharra euki neike eta orduan zera, Agrariara jun ta bertan hartukot informaziva. Ematen badabe eskatzia libre da.

**Dionisio Barruetaberia (69 urte), Zamora baserria, Markina**

Daneri ez diue ematen. Nik askotan eskatu izan dot basua garbitzeko eta pinua sartzeko baina beti ez die eman. Gainera demaseko papeleua egin bihar izaten da.



**Krispin Astigarraga (72 urte), Errasti baserria, Azkoitia**

Ganauana bai baina basuana ez die ematen; garbi garbi dauzket danak eta, geuk lana eginda eh! Ilobak, semiak ta danak, tailarrian jai ein ta, "al monte"!

911\ ) "1■11\1)i.t\_i\_D it;&lt;(\_15 ) )

"Madrid Txikia" deitzen omen zitzaion garai batean Altzolari. Bainuetxearen urterik emankorrenak ziren haiek, 1846 urtearen bueltan eraiki zen bainuetxea. Inguruko herrietatik ezezik, Estatu osotik ere etortzen ziren Altzolara, baita Ameriketatik ere.

beratsak ziren hurbiltzen ziren gehienak. Giltzurrunetarako hain ona zen ura edateko, edota ur epeletan bainuren bat hartzeko batzuek, fama zuten jaki gozoen zaporea dastatzeko beste asko eta, nola ez, handikeriaren eta elegantziaren bideak jarraituz inguratzen zenik ere bazezgoen, nolabaiteko prestigioa baitzuen sasoi hartan Altzolako Bainuetxera joateak. Guzti horiek nonbaiten ostatu behar ziren eta horretarako eraiki ziren Bainuetxekoaz gain, beste zazpi hotel ere: "Hotel Sebastiana", "Hotel Amezkua", "Hotel Ituarte", "Hotel Zelaia", "Hotel Larrañaga", "Hotel Alzola" eta "Hotel Boulevard".

Ondotxo gogoratzen dituzte altzolatarrek orduko egun haiek, "demaseko kotxe haundiak etortzen ziren, txofer eta guzti. Jende inportantia". Uda partera izaten zen jendetzarik handiena, ekainaren 15ean hasi eta urriaren 15era arte. Bainuetxean egun oso bat igarotzeak, logela, bazkariak eta bainuren bat barne, sei pezetako kostua zuen. Herriko plaza "komediantez" betetzen zen eta bainuetxean



Mende haseran zortzi hotel zeuden Altzolan.

izugarritzko festak ematen zituzten, "eguenetan txipiroia egoten zan jateko eta domekero langostia". Eguzteroko 20 aldiz pasatzen zen tren Altzolatik eta itsasuntziak ere iristen ziren bertara, "orain dela gutxi entzun det.kafia lehenengo aldiz Espainian Altzolatik sartu zala". Altzolatar asko eta askok lan egin zuten bainuetxean, sukaldari, zerbitzari, botones gisa...Eta herritarren bat ezkondu omen zen bainuetxera bisitan joandako aberats batekin.

Anekdota gisa hona hemen kontatu digutena: "behin, kanpotik etorritxako batek sukaldarixari pla-

tanua nahi zabala esan zion. Guk aurretik sekula ez entzun ez eta ikusi ere ez genduan egin platanorik. Jun zan rekadistia Donostiara haren bila eta bueltatu zanian ditxosozko platanuakin, ikustekuak zian gure aurpegixak guretzat ezezaguna zan fruta hari begira ta begira".

Egun ez dago garai haietako aztarnarik. Bainuetxea aspaldi itxi zen eta Alzola, Elgoibarko auzo bat baino ez da. Auzorik "independienteena", beharbada. Badute zaharrentzat biltoki bat, baita gazteentzat beste bat ere. Gainontzean, eta pare bat jatetxez gain altzolatarrek ez daukate dendarik. Halerere, umetako eta gaztaroko oroitzapenek bete betean diraute altzolatarren gogoetan. Bainuetxeko urte haiek itzuliko ez diren arren, ahaztu ere ez dira sekula ahaztuko.

### "alrifTEISO Ir

- **BASERRIAK:** Alzolaberazeta baserria eta Alzolabe baserria.
- **JAIK:** Ekainaren 23an, San Juanak.

188396  
4

**TIR-TOR**

BATAIO  
ETA JA11NARTZE  
JANTZIETAN ES-

Jai zoriotsuak ~1 EZIALISTAK

Errosario 2, 74 17 15 ELGOIBAR

2000 1386

**Txaro**

IrRAPAINDEGIA

Ondo pasa jaiak

Errosario kalea 13 -72 74 02 50

2000 1386

**Merino zapatak**

Zorion

S MENTA

KONP KETAK

Errosario 11 /12 behea

# "Lapikuen tapia izan zan nere lehenengo panderoa"

**J**uliana Zubizarreta izenak badu berehalako loturarik pandero eta trikitiarekin. San Lorentzon jaio zen, Armaita Beheko baserrian, baina Urruzunoko Aldapa baserrira ezkondu zen. Bertan bizi da. 84 urte ditu emakume honek, eta sasoi eta umorea ez zaizkio falta, oraindik ere, panderoa hartu eta erromeriak girotzeko. "Zenbat aldiz esnatu ete naizen ametsetan panderoa joka. Hau bai benetako biziva!".

**Odolean daramazu panderoa.** Bai, ama panderojolia zan eta aitxa soinu-jolia. Han ibiltzen nintzan, hartu lapikuen tapak ta haretzek jo eta jo. Behin amak esan zian, "nik ekarriko dizut pandero txua abarketak ondo josten baditxuzu". Abaraketak josi nitxun ta hantxe ekarri zaban amak panderoa neretzat. Nere kontura ikasi naban.

**- Batean eta bestean ibili izan zara.**

Bai, Donostian, Azkoitian, Markinan... Eta Elgoibarren zer esanik ez!

**- Kobratzen al zenuen?** Keba, keba! Soinujoliak kobratzen zaban baina panderoa jotzen ibiltzen ginan emakumiok ez genduan kobratzen, ez zan usatzen.

**Soinujole askorekin jo**

**izan al duzu?** Bueno! Baina, nere bikoterik finena Katalotza izan da.

**- Zer behar du bikote onak?** Konpenetratzia, panderoak soinuari jarraitzia, hortxe dao dana.

**- Eta entsaioak, zer?** Nik ez dot sekula entsaiorik ein, erromerixara jun eta hantxe, nakixan ederkixen jotzen naban.

**- Zenbat pandero dituzu?** Bost edo sei, baina batzuk pisu asko eta soinu bajua dake nere gustorako.

**- Norentzat jotzen duzu gustura?** Familixiantzat eta gertuen dakaten jendiantzat.

**- Umorea behar al da panderoa jotzeko?** Umorez piskat bajutxuo ibilitxa ere beti konforme jotzeko, baina umore onakin, nola ez, hobeto. Baina pande-



rua jotzen beste gauza guztiak ahaztu itxen jataz, ahaztu edo gorde.

**- Gaur egungo musikia gustuko al duzu?** Gehixau gustatzen jataz lehenengo trikitiba ta...

**- Beste instrumentorik jotzen al duzu?** Gustatzen zitzaten aho soinua ta anaixakin hasi nitzan ikasten, baina denbora gutxi ta ez dot ondo jotzen.

**- Juergazale bat zarela entzun dut.** Beti izan naiz ta baita gaur egun ere. Neuri danak gustatzen jataz, erromerixak, dantza, panderoa jotzia...

**- Dantza egitea ere bai?** Batzutan nahiago iza-

ten naban lagunekin dantzara urtetzia baina beste inork ez zakixan panderoa jotzen eta dana batera ezin danez egin...

**- Zer eman dizu panderoak?** [nguruak eta jende asko ezagutzia.

**- Zure atzetik ba al dator panderojolerik etxean?** Bai, Aitziber biloba gaztea. Txikitatik ikusten jakon panderoa jotzeko "jenioa".

**- Trikitixa desagertuko balitz?** Orain gazte asko daoz ikasten, preparazio haundixakin eta nik ez dot pentsatzen desagertuko danik, eta nahi ere ez.

## AZELGAK edo ZER 11~111.1.

■ **JATORRIA:** Jesukristo jaio aurretik; bost mende lehenago, greziarrek eza gutzen zuten azelga. Landare hau laxantea eta dijerigarria da, A eta C bitaminatan aberatsa.

■ **FAMILIA:** *Chenopodiaceae*

■ **IZEN ZIENTIFIKOA:** *Beta Vulgaris* L. Cicla L.

iii **KLIMA:** Hezea eta epela.

■ **ZOLUA:** Materia organikotan aberatsa eta freskua. Ez zaio lur-raren azidotasuna komeni.


■ **EREINTZA:** Urte osoan zehar landatu daiteke neguan ezik. Zuzenean lurrean sar daiteke edota aurretik hazitegi batean landatuz.





## Angel Burg@s

### Medikua



- Zenbat denbora medikuntzan?  
||| Lehenengo, Errioxa inguruko herritxo batean, gero Donostiako ospitalean beste pare bat urte eta Elgoibarren, 1961etik.
- Espezialidade bat ikastekotan, zein gustatuko litzaizuke? **1** Beno, nik, bi urtez ikasi naban pediatria.
- Nortzuk joaten dira gehien kontsultara, emakumezkoak ala gizonezkoak? **1** Gizonak gehiago. Erreuma eta arnasarekin zerikusia duten gaixotasunak dira. nagusi.

Eta emakumeak? **1** Arazo sikosomatikoak gehienbat. Etxean egoteak eta eguneroko bizitzak ekartzen dizkien burukomin eta horrelakoak.

- Zer deritzozu aurten lehenengo aldiz "Alzheimer" eguna ospatzeari? ||| Beno, pixkat egunkariak "inflatu" dutela uste dut. Arazoa ez da denbora gehiago bizi garela, bizimodu eskasagoa, estresa eta horrelakoek eragiten dute Alzheimer gaitza.
- Gripearean aurkako txertoa denei eman beharko litzaieke? / Baietz uste dut. Izurrite bat etorriko balitz, defentsa gehiago izango genituzke.
- Orokorki, osasuntsuagoak gara orain? **1** Niri poza ematen dit gazteak ikusten ditudanean Polikiroldegietara joaten. Baietz esango nuke. Poliki poliki, kontzientziatzen ari garela dirudi.
- Alkohola eta tabakoak al dira gaurko gaitzak? **1** Alkohola bere neurrian, hau da, ardo baso bat jatorduetan ez dago gaizki, baina tabakoa, hobe batere ez erretzea.
- Egia al da medikuen artean daudela erretzailerik amorratuena? Lehen bai, baina orain gauzak aldatu egin dira. Nik hiru pakete egunean erre izan ditut, baina utzi ere, orain dela 24 urte.
- Euskal Herrian ondo jaten da, baina elikatu? **1** Hemen gehiegi jaten da. Elikadura orekatu bat egiten ikasi beharra daukagu. Denetik jan, baina neuniz.
- Zein hutsune dago Seguritate Sozialean? **1** Lehen hutsunea medikuetan igartzen da. Hobeto formatuak egon beharko ginateke eta deontologiaren gaiari garrantzia gehiago eman fakultateetan.
- Medikuntza naturala deitzen denarekin ados al zaude? **1** Bai horixe, berau osatzen duen guztiarekin.
- Egoera animikoak asko eragiten al digu fisikoki? **1** Bai eta baita eguraldi aldaketek, ilargiak etabarrek ere.

MYRYAM ALDAZABAL

## 011PUZKOAKO ESKOLARTEKO XVIRS BERTSOLARII TXAPELKETA (FINALA)

Doinua: Egun da Santimamiña

Autobusez hona gatoz eta badugu mila poz hirugarrenez finalean ta berriz jarraitzeko asmoz.

Lau bat talde gaude hemen guztiak onenak omen ba begiratu gure atzean zenbat entxufatu dauden.

Talde bakoitzetik lau entrenatuz egun ta gau baina besteen kategoriak kriston pena ematen dau.

gu ta beste hiru ekipo hor hamabi txoripito gu apurtxo bat saiatu ezkeru hauen esperantza kitto.

Itxaropena badugu kantatze dugu seguru aurten txapelak berotukoitu Deba Beheko lau buru.

Hortxe aurrean pankarta galeoian lau pirata txapela duzun itsasontzia behar zaitugu asalta.

ARNAITZ GORRITI,  
KEPA MENDIKUTE,  
JON GARATE ETA  
XABIER ASTIGARRAGA.  
(BIGARREN SAILKATUAK)

||

**DOR1** **Urdaitegia**  
(2.4m, 94erte)  
6.4.1dert 7:ar:a4/  
Errosario 29.v 74 11 92

rW)--91( **goop**

**JUANA URRESTI**  
**JANAR EINDA**  
3Caintaiez'Oy • 1g gazagiz,  
zaloz yurey na haltarena/  
San Bartolome 12 - Tel. 74 12 26 ELGOIBAR

# JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

## Edari Banatzailea

G A S L O S A

**INSALUS**

**41,**  
**eva**



**GURELESA**



SANTA ANA 41. v 74 10 41 - 74 11 3

## BAIXILLERGO INTUTIJA eta LANBIDE HEZETAKO INSTITUTUA

**1014 1<sup>3</sup> de. ~ cotte 144, eita \P" W**

11 KASTAROAK	ORDUAK	ORDUTEGIA	PREZIOA
<b>INFORMATIKA</b>			
<b>III Sistema operatiboak (MS DOS/Windows)</b>	<b>24</b>	<b>18-21</b>	<b>6.552</b>
<b>11110TUS 1-2-3</b>	<b>45</b>	<b>18-21</b>	<b>12.285</b>
<b>1111 DBASE IV</b>	<b>45</b>	<b>18-21</b>	<b>12.285</b>
<b>11 WP WINDOWS I</b>	<b>5</b>	<b>18-21</b>	<b>12.285</b>
<b>II WP WINDOWS II</b>	<b>45</b>	<b>18-21</b>	<b>12.285</b>
<b>GESTIOGINTZA ETA KOMERTZIAIAK /</b>			
<b>Z Nominak eta Seguritate Soziaict</b>	<b>42</b>	<b>18-21</b>	<b>12.054</b>
<b>Z Erosketak eta Stock Gestioa</b>	<b>4</b>	17,30-20,30	
<b>II Harrera, hartzea eta salmenta telefono bidez</b>	<b>30</b>	19,30-21	<b>8.610</b>
<b>a Enpresa txikietako karguei zuzendua:</b>		<b>Ostir: 16-22</b>	
<b>"D1RECCION ENPRESARIAL" delako ikastaroa</b>	<b>75</b>	<b>Laru: 8-14</b>	<b>20.664</b>
<b>11 Marketing Zuzena</b>	<b>36</b>	<b>18-21</b>	<b>10.332</b>
<b>Z Mekanografia Audiobisuala</b>	<b>40</b>	18-20	8.000

OHARRA: Ikastaroak lanean daudenei zuzenduak daudea. IZENA EMATEKO: 74 44 80 / 74 44 85

**Hargintza obrari buruzko eskritura**

**E1609ko** uztailaren 4ean egin zen Santa Klara Komentuko **hargintza obrari** zegokion eskritura.

Horretarako, abatesa ama eta 17 monja eta Durangoko Bernabe Solana eta Murueta Bizkaia jaurretiko Martin Ormaetxea, biak hargin eta arkitektu maisuak, bildu ziren.

- Obra Bernabe Solanari eman zitzaion, Gero, Bernabek, Martin Ormaetxea hartu zuen kide bezala bien artean hargintza **lana** egiteko aurrez finkaturiko baldintzetan.
  - Monjek, harginen fidantza jaso eta berehala 300 dukat ordainduko zutela zin egin zuten, baita ere 200 erreale gehiago urtero Gabonetan, maravedi' guztiak ordaindu arte.
  - Eskritura, Lucas Irunaga erret eskribauaren ourrean egin zen eta lekukoak Martin Ubika (abokatua), Joan Saez Aranburu eta Joan Arteaga elgoibartarrak eta Domingo Auria, Bernabe Solanaren morroia izan ziren.
- E Guztira 29 lagun bildu ziren obren hastapenerako dokumentuaren zeremonian.
- 1611ko **apirilaren** 15ean Bernabe Solana eta Martin Ormaetxea,

**Domingo Lerun** eskribauaren aurrean (ordurako **Lucas** Irunaga hila zegoen) akordio batera iritsi ziren. **Honen** arabera, aurrerantzean Martinek bakarrik **izan zuen** obraren ardura asoa. **Honeia, Martinen esku** geratu zen **obra 14 urtetan amaazea**, baita Bernabek Altzolako **Klara monjarekin** zuen 100 errealeko zorra ordaintzea ere.

- 1621ean Ormaetxea kontratistak, 148 dukat ordaindu zizkion **Martin** Arrizabalagari komentuko hormak eroikitzeagatik.
- Eraikuntza berria egiteko plangintza **ekonomiko** zehatza egin behar izan zuten komentuan, 1626ko uztailaren 5ean Frai Pedro Mendibilek, frantziskotarren probintzialekoak, baimena eman zion abatesari **errenta arruntelik aurreztua** zuten 200 dukat eraikuntzan gasta zitzaizkien.
- Honez gain, San Frantzisko Komentuko Frai Jeronimo Yurreta izendatu zuen obrako maisu eta ofizialak aukeratzeko, hauekin batera materialea erosteko, hormen ziurtasunaz, obraren iraunkortasunaz baita gainontzeko gastuez arduratzeko ere.

PELLO ARRIETA

**Sor Teresa Urkiza**  
(1910-1994)



Zaratamon jaio zen, Bizkaian.

Agustinadarra zen eta **1935eko** urriaren 22an Mendaroko Garagartza komentuan sartu zen.

I 936an, kristau ikasbidea ematen hasi ziren komentuan.

O 1937an, eskota jarri zuten.

Mendaroko eta Elgoibarko neska askok, bertan ikasi zuten idazten eta irakurtzen. Hala behar zuten umei Teresak ordu gehiago ematen zizkien.

60 urte eman zituen komentuan eta horietatik 50 pasatxo maistra **Ianetan**.

Orain dela bi **urte Cerd**i komentua itxi zen eta monjak Bartzelonara joan behar izan zuten. Aldegitean Teresaren kezkarik handiena Komentuaren etorkizuna zen. Bere nahia komentua herritarren erabilerarako izatea zen.

Teresa irailaren 30ean hil berri da, 84 urterekin. Igandean, hilak 9. meza emango da bere oroimenean, eguerdiko 12etan Garagarzako elizan, Mendaron.



4000 137994

**Cel e** | **KIROLAK**

**CASX**

**ny** | **LORAK**

*Ondo pasa Errosario kaleko jaiak!*

139094 4000

**ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?**

**HitZea** **andu zure ahotsa!**

Polipoek, n,Auloek, otsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGI DAKO RONKERAK

**ANGELA ZABALETA AIZPITARTE**

**DEITU n" 74 15 56 - 10 03 51**

## 33 EIA

### Pilota partiduak Errosarioko jaietan

Lagunak Pilota Eskolak antolatuta, pilota partiduak jokatuko dira larunbatean, hilak 8, Plaza Handian. Eguerdiko 12etan lehen partidua hasiko da, haurren mailakoa. Bigarren partiduan Elosuko Reyes Azkoitiak eta Fernando Uriarte "Olinpie" elgoibartarrak iazko errebantxa jokatuko dute. Jarraian Elortza azkoitiar ezaguna, buruarekin 600 baloi kolpe ematen saiatuko da, iaz Anoetako Belodromoan "Euskadiko 6 orduak" saioan lortu zuenaren antzeko zerbait.

### XXVI. Xake Txapelketa

Zubi Ondo elkarteak antolatuta, hilaren 15etik azaroaren 26ra bitartean, Herriko XXVI. Xake Txapelketa burutuko da. Partidak zapatuero jokatuko dira, arratsaldeko 4etan, Juan Mugerza kaleko 26an (pista beltza). Suitzar erara jokatuko da, infantil, jubencil eta senior mailetan. Izena emtateko 74 03 92 zenbakira deitu Mikel Fidalgorengatik galdetuz, hilaren 12a baino lehen.

### Tenis ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak helduentzako tenis ikastaroak antolatu ditu, hastapen eta hobekuntza mailetan. Goizez izango dira klaseak eta 15 orduko iraupena izango ditu ikastaroak. Izena emateko azken eguna hilaren 21 a izango da (Udal Kirol Zerbitzua 74 44 15).



**Leticia Astray:**

### "Euskadiko selekzioan bi eigoibartar gaude"

**I Eskuan baloia zenuela jaiotzen?** Ez, Ikastolan laugarren mailan hasi ginan. Lenengo hirugarren mailan futbolarian eta gero laugarren mailan eskubaloian. Hasieran futbola gustatzen jatan gehixao baina gero eskubaloia.

**I Ikastolan ekipo ona osatu zenuten, ez?** Bai, nahiko ona. Sei garren mailan Euskal Herriko txapeldunak izan ginan eta zortzigarren mailan Euskal Herriko txapeldunak berriro eta Espainiako bostgarrenak.

**Meritua norena?** - Entrenatzaileena. Bueno, guk ere badaukagu meritu parte bat baina dakigun gutia Eneko Kortaberriak eta Jose Peñarandak erakutsi digute.

**I Zer moduz kadeteetan?**

Ondo, baina aldaketa igartzen da, entrenamenduetan batez ere, gogorruak dia. Irailean egunero entrenatu dogu, eta orain hiru egun astian. Egunero ordu terdi edo eitzen dogu.

**I Zein postutan jokatzen duzu?**

Lateral postuan.

**I Zein da zure eginkizuna?**

Defentsan, kontrarixua geratu eta atakian zentralakin eta hegaleko jokalarixekin koordinatu eta jokaldiak ein. Golak sartu.

**Nola dabil taldea aurten?**

Momentuz ondo.



**I Orain arteko maila mantentzea, zaila, ez?** - Bai, aurtan seguru ezingo degu maila mantendu, ze, kadetietan lehenengo urtia da guretzat eta badaoz urtebete darmaten ekipuak. Baina saiatuko gera.

**I Ikas Blai osatzen zenutenok jarraitzen duzue?** - Bai, denak gaude eta neska berri bat ere bai.

**I Euskadiko selekzioarako hautatu zintuztetan.** - Bai, ekipoko bosti deitu ziguten eta bi aukeratu zituzten, Ariane Peñaranda eta ni.

**I Partidurik jokatu al duzue selekzioarekin?** Txapelketa bat jokatu genuen Asturias, Errioxa, Nafarroa eta Aragoko taldeen aurka. Nahiko ondo ibili ginan kontuan hartuta entrenamendu bakar bat egin gendula selekzio moduan. Esperientzia moduan ondo egon da. Asturiasekuak adibidez maila oso

altua daukate eta ikas-teko balio izan digu.

**I Sakrifiziorik egin behar izan duzue eskubaloigatik?**

- Ez, gustuz eitzen dot. Ez dit denbora asko kentzen eta ikasketak ere ondo duaz.

- Adina: 13
- Bigarren kirola: Futbola.
- Janari gogokoena? Arroza.
- Asteko egun bat? Ostirala, hurrengo eguna zapatua delako.

**GARAY**  
HARATEGIA  
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

**Fotero**  
OKINDEGIA  
OPILDEGIA  
San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**Salvador Celaya**  
ITURGINTZA  
BILTEGI A BAIN GINTZA  
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK  
Errosario 22. Tel: 74 04 94

# Hasi da Urasandiko Futbito Txapeiketa

Joan den astebukaeran jokatu ziren Urasandiko XV. Futbito txapelketari dagozkion lehen jardunaldiko partiduak. Hogeita sei taldeko zerrenda, iaz baino bi gehiago, arbitraiak aurretik ezarrita eta antolakuntza txukuna dira aurtengo punturik aipagarrienak.

**A** eta B taldeetan banatuta, 13 ekipo talde bakoitzean, sei partidu jokatu dira igandero Urasandiko kanpoetan. Astebukaera bakoitzean talde bati atsedenaldea hartzea dagokio eta beste bati arbitraiaz arduratzea. Partiduen egutegia egin den bezala, arbitraiekin eta atsedenaldiekin ere egutegi bat ezarri da. Neurri honekin iaz sortutako arbitraien deskoordinazioa konpodu nahi izan dute. Izan ere, astebukaera batean A taldeko ekipo batek atsedenaldea hartzen badu, B taldeko ekipo batek arbitratu beharko du. Iaz, bigarren fasean antolakuntzan zebilen jendeak arbitratu bazuen ere, aurten, lehen fasean erabilitako sistema berdina funtzionatu du. Honi lotuta, berrikuntza garrantzitsu bat izango da aurten, txapelketaren araudiari dagokionean. Jokalari batek arbitroa irainduko edota istilurik sortuko balu, partidu bateko zigo-



- Arbitraien auzian neurri bereziak hartu ditu antolakuntzak istiluak ebitatzeko.

rra gutxienez eta bost partidukoa gehienez ezar Iiezaioke. "Neurri honekin orain arte gertatutako istiluak ebitatu nahi ditugu", dio Agustín Santiago antolakuntzako kideak, "hemen musutruk ari gara eta ezin daiteke onartu jokalari batek arbitroari eskua gainean jartzea".

## Aurrekontua

Aurtengo aurrekontua 390.000 ptakoa da. Talde bakoitzak, txapelketa haseran 15.000 pta ematen ditu. Horrekin eta iaz soberan geratutakorekin osatzen da aurrekontua.

Urasandiko Txapelketak 300 jokalari inguru biltzen ditu. Talde bakoitza 12 bat jokalarik osatzen

dute, dena den, talde askok jokalari gu-txiagorekin jokatu izan Orain arte, txapelketako azken partidura arte, jokalari berriak sar zitezkeen talde batean, heti ere, 12ko topea jarrita. Aurten, txapelketa bukatu baino bost partidu lehenago onartuko dira beranduenez jokalari berriak.

Talde kopuruari dagokionean, 26 osatu dira aurten. Kopuru hau gainditzea ia ezinezkoa da Santiagoren iritziz, "izan ere, aurreko edizioetan inguruko herrietako jendez osatutako taldeak egon dira, baina orain, kasu batzuetan ezik, elgoibartarren taldeak baino ez daude".

## ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 8

16,00: Elgoibar Ormaiztegi (Kadete mutilak)

17,30: Elgoibar - Zarautz (Senior mutilak)

Igandea 9

12,00: Elgoibar Bergara (Jubenilak)

## FUTBOLA Mintxetan Larunbata 8

12,00: Elgoibar Aurrera (Ondarru) (Kadeteak)

17,00: Haundi - Arenas

Igandea 9

15,30: Eibar- Urola (Kadeteak)

17,10: Eibar Urko Lebenengoak (Jubenilak)

## FUTBITOA Urasandin Igandea 9

10,00: Gruas Pana - Berrogei Duro Lucky Luke - Rehel Urbi

11,00: Karkis - Resto del Mundo Pedrusco Hunde Verboten

12,00: Sporting Fotero Mimox- Univ. de Chile

## ESKUBALOIA

Elgoibar 14 - Durango IO (Senior neskek)

Elgoibar 8 Leizaran 10 (Kadeteak neskek)

Ereintza 13 - Elgoibar 22 (Senior mutilak)

## FUTBOLA

Mungia 1 Haundi 0

Elgoibar 6 - Aretxabaleta 0 (Neskek)

Elgoibar 5 Gazteak 0 (2. errejionala)

Elgoibar 9 - Pasaia 1 (Infantilak)

Mondra I - Elgoibar 2 (Kadeteak)

## FUTBITOA

D. T. Veterans 3- Oraiko Cafe 0

King-Kong 3 Ametsa 0


Aldavas 1- San Roketarra 5

Dinamo Kalimotxo 0 Garajes Garcia 4

La Maxia 3- Replastisa 1

¡  
D  
A  
Z

# ELGOIBARKO IZARRA



## BIENTIAKO OHARRAK:

1. Lanak **ELGOIBARKO IZARRA** kuhur Elkartera, Ubltorte 4, bidali behar dira.
2. Kartozalean '**ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK**' jartzeaz gain, 'Prosa **Lelliaketa** edo 'Ebcegitio **Bertso-Paper Lehiaketa**'n parte harizeko **den** zehaztu beharko da. Hau ezezik, zein mailatan parte hartzen den ere jarri beharko da (**A,B edo q**. Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak baziertuak izango dira automatikoki.
3. Sari banaketa eta irabazieen berri ematea, San Anton jaietan egingo den jaialdi berezi batean izango dira.

1994

L  
E  
H  
I  
A  
K  
E  
T  
A  
K

## IX. PROSA LEHIAKETA

### inarririk:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork parte har dezake.
- 2.- Hiru maila bereiziko dira:
  - A.- O.H.O.ko 7. eta 8. mailak.
  - B.- Ertainetako 1. eta 2. mailak,
  - C.- Ertainetako 3. eta 4. mailak.
- 3.- Idazianen luzera:
  - A.- 3-6 orrialde bitartean.
  - B.- 4-8 orrialde bitartean.
  - C.- 5-10 orrialde bitartean.
- 4.- Gaia: librea izango da.
- 5.- Idazteknika: prosaz izan beharko da.
- 6.- Idazianak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia), izenburua edo giltz-lemma batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.
 

Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lemma jarriko dira.
- 7.- Sariak:
  - A.- 1. Txapela eta 10.000 pta.
  - 2. 5.000 pta.
  - B.- 1. Txapela eta 30.000 pta,
  - 2. 15.000 pta.
  - C.- 1. Txapela eta 40.000 pta.
  - 2. 20.000 pta.
- 8.- Lanak entregatzeko epea: Abenduak 10.
- 9.- Epaimahaia **ELGOIBARKO IZARRAK** izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

## XIV. 'ETXEGINA' BERTSO-PAPER LEHIAKETA

### Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork parte har ezake.
- 2.- Hiru maila bereiziko dira:
  - A.- O.H.O.ko 5. eta 6. mailak.
  - B.- O.H.O.ko 7. eta 8. mailak.
  - C.- Ertainak ( 14-18 urte )
- 3.- Bertsoen luzera:
  - A.- 6 koplak edo 2 bertso.
  - B.- 8 koplak edo 3 bertso.
  - C.- 5 bertso.
- 4.- Gaia:
  - A eta B mailatan gai librean.
  - C maila: (Bat aukeratu)
  - 'ZERK ERAGITEN DIT IRRIFARREA?'
  - 'RUANDAN ERE IZANGO DIRA GAZTEAK!'
- 5.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru izenburu edo giltz-lemma batekin eta egi earen inolako ezaugarririk gabe.
 

Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen-deiturak, helbidea eta bautatutako giltz-lemma jarriko dira.
- 6.- Sariak:
  - A.- 1, Txapela eta 8.000 pta.
  - 2. 4.000 pta.
  - B.- 1. Txapela eta 15.000 pta.
  - 2. 7.000 pta.
  - C.- 1. Txapela eta 30.000 pta
  - 2, 15.000 pta.
- 7.- Lanak entregatzeko epea: Abenduak 10.
- 8.- Epaimahaia **ELGOIBARKO IZARRAK** izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

ANTOLATZAILEA:  
ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartea

LA' UNTZAILEAK:  
ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNA



# Rodari-ren ipuin bat taularatuko du Taupadak

**"Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile"** izeneko antzezlanaren taularatuko du gaur, hilak 7, lehen aldiz Taupadak Elgoibarren. Jose Mari Larrañaga eta Edurne Lasaren zortzigarren lana da, "orain arte egindakoaren aldean, guztiz ezberdina".

**Fi** Izenburu konplikatu xamarra, ez? - Rodarik asko erabiltzen ditu izenburu luzeak. Dena dala, askoz ere luzeagoa zen.

E Non sartuko dituzue hainbeste zaldi, kotxe etabarrak? - Hori ikusiko duzue. Garbi dagoena da oso sinbolikoa dela. Posible zen kotxe flamanteak ateratzea, baina gehiago jokatzeko dugu jendearen imajinarioarekin.

■ Imajinarioarekin jokatzeko, ez al da aurrekontu aldetik irtenbide "merkea"? - Ez, eta ez da hala izan. Azkenian elementu gutxi ikusi arren, nahiko altua izan da aurrekontua. Musika bereziki egina dago, zuzendari bat izan dugu interpretazio lanari garrantzia eman nahi izan diogulako. Ez genuen aktorea bigarren mailan geratzerik nahi.

• Kolaboratzaile mordoa izan duzue beraz. - Bai, esku programan agertzen dira gehienak. Zuzendaria, rrusikagilea, maskaren egileak, panpinen egileak, testuaren


moldatzailea, agertzen ez den argazkilaria eta abar mordo bat.

**iii** Zein estilotako lana da? Klown linean dago. Ipuinean oinarritu gara baina asko inprobisatu dugu.

■ Egingo al diguzue sinopsi txiki bat? - Ipuinak kontatzen doazen bi titiriteroren gorabeherak dira. Herri bakoitzean topo egiten duten gauzekin jokatzeko dute, eta batek besteak kontatzen dituen ipuinak gogoko ez dituzenez, ba, ipuinak asmatzen hasten dira.

**iii** Zenbat denbora obra prestatzen? - Asko, ia urtebete. Baina gure kasuan orduak kontatzen ditugu eta ez egunak, dedikazioa ez delako egun osokoa.

■ Zer da lan hau Taupadarentzat? Beti da reto bat. Orain



arte behintzat beti egin ditugu gauza ezberdinak, beti gaude ikertzen. Lan hau oso ezberdina da. Zuzendaria edukitzea aberasgarria izan da. Inoiz baino lan profesionalagoa egin dugu alde honetatik.

• Hurrengo lanerako ideien bat? - ideien bat bai. Panpinen mundua asko gustatu zaigu, bide honetatik agian.

1393

## 3. ADINALDIA URRIAN ZEHAR



*1 Dohaineko begi berrikuspena  
1 Betaurrekoak kristal eta guzti,  
urrutirako edo gerturako 6.900  
Betaurreko bifokalak 9.900*

**UZURI**  
OPTIKA  
San Frantzisko, 21 <sup>v</sup>74 03 59

DEI EGIZU ZURE RISITAREN EGUNA ZERAZTEKO  
*12);D*

# aldatzen diren gauzak... Ala ez?

railaren 30ean izan zuten aurkezpen eguna. Halere, klaseak urriaren 3an hasi zituzten eta bertan izan zen BARREN. institutuan aurkitu genituen hasi berriak, OHO amaitu efa aro berri bati hasera

ematen diotenak, BBbleko ikasleak. ~~M~~ekanikan, berriz, "beteranoak", UB1 egitera doazenak. Aurten, ikasturte berria ezezik, ikastetxe berria ere estreinatzen dute azken hauek. Batzuentzat nobedadea

dena besteentzat esperien. tzia bihurtu da dagoeneko. Lehenengo eta bigarrenen iritziak jaso ditugu, aurrez aurre jarri ditugu, urteak pasa ahala, lehenengo ikasturtefeko usteak erdia ustel diren ala ez jakiteko.

## Noia ikusten dituzu datozen urteak?

**OINANA EUGI**  
17 urte, UBI



Urtetik urtera gogorro jun dala ikusi dot eta UBI askoz gogorragoa dala esan digute. Kriston txapia sartzen dabe selektibitatearen inguruan, bildurra. Datorren urtian enfermeria egitia nahi nuke.

**MAITE ZABALA**  
17 urte, UBI



Neri ez zitzaidan irudituz oso salto handia OHOTik Institutura dagoena. Esaten dabenez haundiagoa da unibertsitaterako pasoa. Dana dala aurten nahiko bildur sartu digute. Maisuek lehenengo egunetik esaten dabe UBIn gehixo ikasi behar dala, BBBn lan gutxi egitera ohituak gaudela eta selektibitatea ere hor dagoela. Datorren urtean karrera tekniko bat hasi nahi nuke.

**MIKEL ELKORO-IRIBE**  
17 urte, UBI



UBI zailena da. Halere, egunero ikasten badozu ez da hain salto haundixa izaten. Nik iaz egin naban UBIn baina aurten berriz ere hasi naiz nota igotzea nahi dotelako, espero dot jun zan urtian baino hobeto ibiltzia. Ni B ereduan nago, biologiarekin. Nere asmoa IVEF ehltea da, eta nahiko nota altua eskatzen dabe.

## Egingo al duzu orain artekoaren balorazioa

**KOLDO LARTAIN**  
14 urte, BBB1



Zeozer zailagoa dela entzun dogu baina irakasleek esan digutenez, egunero ikasiz gero ez da problemarik egoten. Gainera, kontuan hartzen dabe zela portazen zeran, kuadernuen txukuntasuna... Ez dakat batere garbi zer egingo doten gero. Lehenengo eguna? Aspergarrixa.

**IOSU GARCIA**  
14 urte, BBB1



Nagusitxan zer nahi dozun egitian gorabeheran dago gauza bat edo beste bat aukeratzia. Nik arkitekto egitia nahiko naban eta horregatik etorri naiz Institutura. Nere ustez zailagoa izango da baina gogor ikasteko intentzioekin nator.

**KRISTINA GOMEZ**  
14 urte, BBB1



BeItza ikusten dut dena, oso zaila. Nere ustez hemendik aurrera gehiago ikasi beharko dugu, batez ere azkenengo urteetan. OHO ondo bukatu eta beste ezer pentsatu gabe erabaki nuen BBB egitea. Gainera nik puerikultura kasi nahi dut eta hori egiteko lehendabizi BBB egitea aholkatu didate. Institutuan giro ona ikustenda, lehenengo eguna baino ez da baina mementuz oso ondo.



## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean.

Marraduna.  
a 74 39 19

GARAJE BAT saltzen da San Roke kalean, Kirolegi parean, 15,93 nnot. Itxia da.  
s" 74 06 09

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehen bait lehen.

s" 74 22 70 Igor  
Gauetz 9etatik 10etara

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Marraduna. Prezio onean.  
s" 74 08 79

GARAJE BAT alokatzen da Urasandin.  
s• 74 31 07

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.  
'w 74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.  
a" 74 08 05

AKORDEOI BAT erosiko nuke. Botoiduna.

th" 74 00 78  
Deitu eguerdian edo gauean

PEUGEOT 405 BAT SALTZEN DUT.  
17t 14 30 52 Jose Maria  
Deitu 20,30etatik 22etara

SIAMES BAT eskaintzen da doan.  
s 74 39 19  
Gauetz deitu

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.  
s' 74 18 51

MENDIKO plastikozko Koflach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)  
s' 12 04 44  
Deitu eguerdian 1,30-2,00

MOUNTAIN-BIKE hat eta URETAKO PAIPO bat salgai, biak prezio merkean.  
13\* 74 26 91

Bainu gelarako MANPARA, ARMAIRUA eta ISPILUA saltzen ditut. Prezio oso onean.  
11\* 74 19 81 Ana Mari

## Lana

PERFUMEAK SALTZEKO jendea behar da. Informazio gehiagorako deitu:.  
17 75 10 07  
4etatik aurrera

UNIBERTSITAL IKASKETAK dituen neskak edozein lan egingo luke, 5etatik 9etara.  
Tr 74 04 86 Ana

TITULUDUN PELUKERAK lan egingo luke Elgoibarren. Asteartetik larunbatera. Esperientzia dut.  
13\* (94) 682 78 18 Iratxe

HAURRAZAINDU eta ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Astelehenetik ostiralera.  
11' (94) 682 78 18 Iratxe

HAURRAK ZAINDUKO GENITUZKE, astegunetan arratsaldean eta astebukaeretan egun osoz eta gauetz.  
tr 74 09 85 Nuria/Ana

Edozein TESTU MOTA ORDENAGAILUZ PASATZEN da. Grafikoak sartzeko aukera.  
Tt 74 41 77 Idoia  
'r 74 22 77 Iratxe

NESKA BAT BEHAR DA hi ume zaintzeko, arratsaldeko 5etatik 9etara  
s' 74 41 32  
Fernando/Bernar

Hezkuntza zientzietan lizenziatuak (Pedagogia) OHO eta REMeko klase PARTIKULARRAK mango lituzke irailetik aurrera. Talde murriztuak.  
s 74 39 24 Maite

Magisteritza eta ingenieritza teknikoan lizenziatua naiz eta PARTIKULARRAK ematen ditut euskaraz eta erdaraz. OHO eta BUP.  
s 74 28 53 Alazne

## Etxebizitzak

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.  
s' 74 44 04 Ana (Gauetz)  
Te 12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun haten beharrea gaude.  
Tt 65 38 76 Olatz

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115m<sup>2</sup>, itsasora hegira eta gela guztiak kanpokaldera ematen dute.  
s 60 41 20  
Arratsaldean 8etatik aurrera

## Bestelakoak

EMAKUME ERLOJU BAT aurkitu nuen larunbatean, hilak 1.  
s 74 01 01

SIBERIAN HASKY BAT aaldu da Karakate mendi inguruan, duela hilabete. Kolore beltza eta zuria, hegi urdinak. 3 urte ditu eta emea da. Hasky izenari erantzuten dio. Diruz saritzeko prest nago.  
Tr 10 18 96

## IRAILEAN

### Hildakoak

Noberto Francisco Arriola Mugerza, 91 urte

(Irailak 6)

I Primitivo Martinez Gomez, 63 urte (Irailak 12)

Dolores Rodriguez Escudero, 69 urte

(Irailak 17)

Antonio Hijano Moya, 67 urte (Irailak 28)

### Jaiotakoak

Ander Beristain Arrillaga (Irailak 1)

Nerea Lago Alonso (Irailak 4)

I Aitor Alberdi Arriola (Irailak 7)

I Jon Ander Garcia Otero (Irailak 9)

Sabando Loiola (Irailak 13)

I Nora Santiago Izagirre (Irailak 19)

Leire Elizondo Apoita (Irailak 26)

Lide Baz Salegi (Irailak 29)

### Ezkondutakoak

I Jon Leiaristi Elustondo eta Agustina Nogales (Uztailak 31)

Marsi Rodriguez Santas eta Maria Blanco Orza (Irailak 24)

## OSTIRALA

22,15 ANTZERKIA

"Zaidi bat, bi kotxe eta 30 ile"

TAUPADA (Estreinaldia)

1 Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## LARUNBATA

19,30,22,15 ZINEA

"Rapa Nui"

✓ Herriko Antzokian



## IGANDEA

16,30,19,30,42,15 ZINEA

"Rapa Nui"

✓ Herriko Antzokian

## IO ASTELEHENA

19,00 HIESARI BURUZKO  
ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxeko ganbaran

Antolatzailea: Errotatxo

22,15 ZINEA

"Rapa Nui"

✓ Herriko Antzokian

## II ASTEARTEA

19,30 HITZALDI

"Literatur lan baten sorrera"

Hizlaria: Bernardo Atxaga

✓ Herriko antzokian

Antolatzailea: Ikastola

19,30 HITZALDI - EZTABAIDA

"Hiesaren tratamenduan  
medikuntza alternatiboa"

Hizlaria: Javir Rabiño medikua

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo

19,00 ZUHAITZ ASTIALDIRAKO  
TALDEAK DEITURIKO BILERA

✓ Malako elizan

22,15 ZINEA

"La edad de la inocencia"

✓ Herriko Antzokian

## ASTEAZKENA

16,30,19,30,22,15 ZINEA

"El peque se va de marcha"

✓ Herriko Antzokian

19,30 HITZALDI - EZTABAIDA

"Hiesaren egungo egoera"

Hizlaria: Daniel Zulaika medikua

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo

## I OSTEGUNA

19,30 HITZALDI - EZTABAIDA

"Hiesarekin bizi"

Hizlariak: Josu Imanol Unanue eta  
Cortes Bracero de la Hoz.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo

## OSTIRALA

19,30 ZINEA

Hiesari buruzko jardunaldiak

"Elaceite dela vida"

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Errotatxo

22,15 ZINEA

"La lista de Schindler"

✓ Herriko Antzokian

## ixandak

### FARMAZIAK:

9, larunbata: Etxeberria

10, igandea: Etxeberria

11, asteiekena: Ormazabal

12, asteartea: Ormazabal

13, asteazkena: Ormazabal

14, osteguna: Ormazabal

15, ostirala: Yudego

### OKINDEGIA:

10, igandea: ElZAGIt

## ERRoSARio KALEKe JAIK

### URRIAK 7, OSTIRALA

20,15: Itxaropena abesbatzaren kontzertua.

Jarraian, dantzaldia

21,00: Afaria Gure Bide elkartearen, Plaentxi bikoteak eta Dakintak alaituta.

### URRIAK 8, LARUNBATA

10,45: Txafligu jaurtiketa.

11,00: Buruhandi eta erraldoiak.

12,00: Pilota partiduak. Lehen saioan Lagunak eskolako haurren arteko partiduak. Bigarren saioan, 1993ko errebantxa. Elosuko Reyes Azkoitia Fernando Uriarte "Olinpic"en aurka.

Jarraian, Elortza azkoitiarrak 600 kolpe emango dizkio baloiari

buruarekin.

18,00: Erraldoi eta buruhandiak.

19,30: Trikitilarien kalejira.

21,30: Erromeria Gelatxorekin.

### URRIAK 9, IGANDEA

10,45: Txafligu jaurtiketa.

11,00: Buruhandi eta erraldoiak.

11,30: Meza, Eliz Abesbatza eta

Haritz Dantzari Taldearekin.

Ezpata dantza dantzatuko da.

Jarraian, jubilatuen kalejira Udal

Txistulari Taldearen laguntzaz.

Jubilatuen ohorez aureskua

dantzatuko da.

12,45: Bandaren kalejira.

Segidan Bandaren kontzertua.

Jaiak bukatzeko, Agur Jaunak abestuko da.

**Easter**

# ESKAPARATISMO

# TAROA

HASERA: Urriaren 24an (1zena emateko azken eguna urriak 19)

IRAUPENA: Zazpi astelehenetan zehar (9etatik letara)

ANTOLATZAILEAK: Gipuzkoako Merkatarien Elkarte eta Txankakua Merkataria Elkarte

PREZIOA: Bi elkarteetako haz 'd ak: 3.00upta.

Elkarte batekoa : 5.0 0 pta.

Bazkide ez dire ak: 0. 00 pta. **ii 4** **2 g:0(9°)**



GI PUZKOAKO  
MERKATARI EN  
ELKARTEA

INFORMAZIOA  
eta  
IZEN EMATEA



10 66 66



MERKATARI ELKARTEA



**sake**

# INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

## ESKIUNTZA BEREMAK

Belar baziak: ~~gu~~ belarra eta belardi berriak

11 Ongarriak

**3** Belardian uztaua eta belar txcirrak galtzeko:

300 L/ura  3L/Ha  Tropotone  1.770 pta/Litroa  
 2L/Ha  Perseutox  2.410 ptaffitroa

Belar bolak entsilatzeneko plastikozko zakuak:

TXURIBELTZ (1,30m. x 2,95m.)koak  367 pta/bakoitza

Aldapa deshidratatua pardotan  19 pta/kiloa

Kalitate garrantzitsua: Hezetasuna %14tik behera. Proteina %17tik gora

Pulpa koskorra, txuria, ONA (ACOR) granelean  22,5 pta

Alpapa koskorra granelean  16,5 pta

Alpapa deshidratatua pardotan  20,5 pta

Itzlarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 00 - 19 93 30 Faxa: 19 92 70

# -25 GAU BEREZI HATERA GONBIORTZEN ZAITU

DISCO-ak & LEVEL MUSIC  
= 1  
CJ  
t==  
C.=1

/fl

URRiñ 14 OSTIMILII

IDEMIISEHO D. J. LEVEL 8fe1

fLFON frJESUS

JUIMPE LEVEL MUSIC



LfIBUNBRiEifIN

ssi'ercs

6R2TEENTZNI0 Sf110 BERRIR

WITEENTZ1110 PREZIOTRN

300pla EURRIR BRIINE

6,30eratik 930eldra